

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko martxoaren 27tik martxoaren 31rako astea

INGURU MAKROA:

- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

ASTE HONETAN MERKATUETAN

GURE IKUSPEGIA

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: KPI EUROGUNEA



Datuaren analisisia

Eurogunean, martxoko KPIaren atariko kalkuluaren arabera, bost hamarren moteldu dela ikus daiteke, % 1,5eraino, merkatuak % 1,8ra igotzea espero bazuen ere. Osagaiei begiratuta, energiaren prezioen igoera txikia aipatu behar da, nahiz eta oraindik elikagaien, edari eta tabakoaren, zerbitzuen eta energetikoak ez diren produktu industrialen segmentuaren bilakaeratik gora dauden. Bestalde, eurogunekeo herrialde nagusietan prezioek izan duten beherakada orokorra azpimarratu behar da. Alemanian, datuak bost hamarren egin du behera, % 1,7raino. Bitartean, Espainian, otsailarekin alderatuta, 9 hamarren egin du behera, eta erregaien eta elektrizitatearen prezioak izan dira igoera apalago honen eragileak.


Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: KPI



Datuaren analisia

Japonian, otsailean, prezioek % 0,3 egin zuten aurrera; urtebetetik gorako jaitsieren ondoren, bigarren hilabetez jarraian egin dute berriro gora. Arropa eta oinetakoak % 1 eta % 3, hurrenez hurren, garestitzea izan da adierazlea gorantz bultzatu duen arrazoi nagusia. Atzera egin zuten sektore bakarrak erregaiena, argiarena, urarena eta etxebizitzarena izan ziren.


Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: PMI MANUFATURA-INDIZEA



Datuaren analisia

Txinan, martxoan, manufakturen sektorearen jardura ia bost urtetako erritmorik altuenean hazi da, eta horrek erakusten du, munduko bigarren ekonomiarik handienak indarra irabazi zuela 2017. urtearen hasieran. Erosketen Kudeatzaileen Indizea (PMI) 51,8 puntura igo da martxoan, aurreko hileko 51,6tik. Analistek aurreikusitako 51,6tik gorakoa izan da datu hori, eta 2012ko apiriletik eman den altuena.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura-indizeak hileroko erosketen profesionaleri eta enpresetako exekutiboeri manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
03/04	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	--
03/04	Italia	Italiako Markit/ADACI fabrikazioaren PMIa	55.6
03/04	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	--
03/04	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	58.3
03/04	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	56.2
03/04	Italia	Langabezia tasa	% 11.8
03/04	Erresuma Batua	Markit UK PMI Manufacturing SA	55.0
03/04	Eurogunea	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	% 0.3
03/04	Eurogunea	Langabezia tasa	% 9.5
03/04	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	--
03/04	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	57.0
04/04	Espainia	Hileko langabezia-tasa	--
04/04	Eurogunea	Hileko xehekako salmentak	% 0.2
04/04	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$46.5b
04/04	Estatu Batuak	Fabrika-eskariak	% 0.9
05/04	Japonia	PMI Nikkey composite Japonia	--
05/04	Espainia	Markit PMI Composite Espainia	--
05/04	Italia	Markit/ADACI Italia Composite PMI	--
05/04	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	--
05/04	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	57.0
05/04	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	56.7
05/04	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Composite PMI	--
05/04	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	180k
05/04	Estatu Batuak	Composite ISM ez manufaktura-sektorea	57.0
05/04	Estatu Batuak	Fed-en ordainsariak	--
06/04	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
06/04	Japonia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	43.4
06/04	Alemania	MoM fabriken aginduak	% 3.4
06/04	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
07/04	Alemania	Hileko SA industria-ekoizpena	-% 0.3
07/04	Alemania	Balantza komertziala	17.4b
07/04	Frantzia	Balantza komertziala	--
07/04	Frantzia	Hileko industria-ekoizpena	--
07/04	Espainia	Hileko industria-ekoizpena	--
07/04	Erresuma Batua	Hileko industria-ekoizpena	-% 0.1
07/04	Erresuma Batua	Balantza komertziala	-£1900
07/04	Estatu Batuak	Langabezia tasa	% 4.7
07/04	Estatu Batuak	Hileko handizkako merkataritza-salmentak	--
07/04	Txina	Nazioarteko erreserbak	\$3015.0b

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Munduko burtsa nagusiek itxiera mistoak izan zituzten. Astea lasaia izan zen eta sorpresa gutxi gertatu ziren. Europan, Erresuma Batuko lehen ministroak Europar Batasunetik ateratzeko eskaera formala egin zion Bruselari, eta horrela, behin betiko irteeraren aurreko bi urteko negoziazioen epealdi iragankorrari hasiera eman zion. Europako burtsetan gorabehera handirik gabe jaso ziren albisteok, eraginak epe ertain edo luzean nabaritzen hasiko direlako. Bestalde, Eskoziaren independentziarako 2018ko udazkenean edo 2019ko udaberrian egingo litzatekeen beste erreferendum bat eskatzea adostu zuen Eskoziako parlamentuak. AEBetan, Obama administrazioak klima-aldaketaren aurka prestatu zuen araudia bertan behera uzteko dekretua sinatu zuen Trump presidentek. Azkenik, Txinari dagokionez, Estrategia Ekonomikoaren Akademia Nazionalaren aurreikuspenen arabera, Asiako erraldoia % 6,8 haziko da 2017an. Horrekin guztiarekin, Europako eta Amerikako burtsek igoerekin itxi zuten astea, Londreseko Ftse-a izan ezik. Japonian eta herrialde gorakorretan oro har, astea pixka bat negatiboa izan zen.

ERRENTA FINKOIA:

Europako eta Amerikako bonuen errentagarritasunak behera egin du asteen. EBZtik interes-tasen etorkizuneko igoeren aukerak hozteko egindako adierazpenek beherako mugimenduak eragin zituzten Europako tasetan. Hamar urterako Espainiako bonuaren errentagarritasunak 3 op egin zuen atzera, % 1,67raino; Alemaniako bonuan, berriz, mugimenduak nabarmenagoak izan ziren, eta hamar urterakoak 8 op egin zuen atzera, % 0,33raino, eta arrisku-prima, beraz, 5 op handitu zen, 134 puntuetaraino. AEBetan, Europako joera bera errepikatu zen, baina mugimendu ez hain nabarmenekin. Kredituak, bestalde, bere diferentzialak estutu zituen.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Dolarrak balioa irabazi zuen euroaren aldean, eta 1,07\$/€ mailan itxi zuen astea. Europako monetak Yenaren eta Liberaren aurrean ere galdu zuen balioa. Lehengaietan, berriz, petrolioaren prezioa % 4,40 handitu zen. Aurreikusitakoen azpitik egon diren Estatu Batuetako petrolio gordinaren inbentarioak eta ekoizpena murrizteko akordioa luzatzeko egon daitezkeen aukeren inguruko baikortasuna kotizazioaren lagungarri izan ziren. Urrearen balioa, bestetik, % 0,47 igo zen, 1.249,35 \$/ontza mailaraino.

INDICES

MSCI WORLD (Local)	
IBEX 35	
DJ EURO STOXX 50	
DJ STOXX 50	
FTSE	
S&P 500	
Dow Jones	
NASDAQ	
NIKKEI 225	
MSCI EMERGENTES (Lo	51.212,06
MEXBOL	
BOVESPA	
SHANGHAI	
Rusia Rts Moscú	

Tipos Gobiernos

ALEMANIA 2 AÑOS	-0,74
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,17
EE.UU 2 AÑOS	1,25
ALEMANIA 10 AÑOS	0,33
ESPAÑA 10 AÑOS	1,67
EE.UU. 10 AÑOS	2,39
ALEMANIA 30 AÑOS	1,11
ESPAÑA 30 AÑOS	2,91
EE.UU. 30 AÑOS	3,01

Spread de credito (pb)

MARKIT ITRX EUROPE 06/22	73,90
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	290,14

Divisas

Dólar / Euro	1,07
Yen / Euro	119,07
Libra/ Euro	0,85

Materia Primas

Nivel

%

Petroleo (Brendt)

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.